

## Norantz goazen begira

Badira beti aurrera begira bizi bear dala uste dabenak, etorkizunerako egitasmoak taxutu eta orrako pausoak emotearen ekin-garra agertzen dabenak. Joanak joanda; leenari or konpon! Etor-kizuneko lora eta frutua dira prestatu eta landu bear diranak. Geroak dau balioa, ez joanak. Gomutearen eskarmentuak ez deustie zirkinik eragiten. Euren aditzak orain aldian eta geroan finkatzen dira.

Aurrera egingo bada aurrera begiratu bear dana argi dago, leenean jarrita gelditzeak igikatx biur gaikez, arri eta momia egin; baina joandako eskolearen ikasgaietaz ez baliatzeak, leenari bere argi-errainuak ez eskatzeak, orduko joan-etorrien eta pausoen zertzeladetatik zerbait onuragarririk ez atarateak, bidebakokeria dirudi. Atzera begiratu, ez leenean gelditzeko, leengo arri bardinean estropezu egin eta jaustea aldentzeko baino. Bibliara joten badogu be jokera bardina agertuko jaku bein eta barriro. Igaro ziran aldietan Jaunaren Erriak emon zituan pausuak eta Jaunak izan eban eskuzabaltasunak, etorkizuneari nondik norako pausuak emon bear zituen asmetan joateko argi barririak emoten eustiesan. Leenaren gomutea galdu egin dauan erria, bere nortasuna galdu dauan erria dala esaten da gainera.

Aurtengo partean, maiatz aldean emon genduan amaitutzat Bizkaiko Eleizbarrutiko Batzar Nagusia. Ainbat asmo eder agertu ziran; ainbat alor barriztau bearreko agertu jakuzan begien aurrean. Asmo areik egitasmotzat jotene genduzan, eta letraz beintzat orrelako zerbait gendukez.

Ara baina, bizitza barriztatzean emoten diran astinaldiak, udaldian eta izaten diran ekaitzen antza be euki leikie. Trumoi eta oinaztu, jausten da zaparradea, busti eta beratzen ditu baztarrak, erdi endekaturik eta zimeldurik lez egozan landarak belarriak jasoten ditue, dana barriztau dala emoten dau, baina gainetiko aroak laguntzen ez badau, dana gelditu leiteke leenean, leen ainean zimur, zimel eta kaskar.

Bizkaiko Eleizeak bizi izan eban astinaldi horren inguruan, begi bata leenean eta bestea geroari begira jarririk, norantzako pausoak emoten diardugun, erneminetan genduzan barriztatze-asmo landarak zelan dagozan ikusten asteak ez deusku kalterik ekarriko. Bitartean izan dogun oporraldia aspaldietan alde egina dogu eta bizitzea bere betiko burdinarietan zear labanka doa aurrerantz. Baina norantza? Ara or itauna. Eta urtea zeatz jausi aurretik orretxi erantzuten asteak ez lekarkigu kalterik, onurea bai, ostera. Joan aldietako bide gorrian eta erkinean ez jausteko be.

Bizkaiko kristinau bizitzea barriztau eta indarbarritzeko egin ziran azterketak eta ames biziak, utsaren urrengo litzatekez frutu emoteraino elduko ez balitzaz. Eta pausu ori emoteko orduan geutariko bakoitzak be berba luzea dauka, berbea eta ekintza bidea. Letreak ez dau ezer lortuko, letretan jarria bizigara biuritzen ez bada. Orretarakoxe deritxat egokia norantz goazen patxadaz, baina serio begiratzeari, leengo bide bardinean jausi eta belaunak odoldu ez dakiguzan be.